

Euskadiko 'Estrasburgo txiki'

**Jon-Mirena
Landa Gorostiza**

Giza Eskubide eta Botere
Publikoen EHuko Unesco
Katedraren zuzendaria

Euskadiko Autonomia Elkartean 2016ko abuztuaren indarrean sartu zen lege oso garantzitsu bezain ezeguna:hots, 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortza eta kalte-ordainetako ematekoa. Laburbilduta: 12/2016 Legea. Izen luzeak biktimon inguruko polemika islatzen du, izan ere nola deitu ba poliziak hildako pertsona edota torturatutakoa, arrazoi politikoan oinarrituta? Estatuko indarkeria-biktimizez ari gara zalantza gabe. Estatuak, bere agenteen bitartez edota norbanakoak baina funtzionario publikoekin ados jarria, etsai politikoa pertsegitu, diskriminatu, desjabetu, atxilotu, torturatu edota hil egin zuelako.

Batzuek hori ez dute gertatu zela inolaz ere aitortu nahi. Jakina, halako egitate larrietan Estatuaren egiletza baieztatuz gero, halaberharrez ondorioak aterako beharko genituzkeelako. Alegia: jakin beharko nork erabaki zuen; nork planifikatu egin zuen; nork baimendu zuen; nork begiratu zuen beste albo batera... Aztertu beharko da erakunde-mailan neurri egokiak hartu al diren berriro ere hori gerta ez dadin. Galdetu beharko dugu zein ideologiaren izenarekin egin zen hori guztia. Galdera deserosoak baina beharrezkoak demokrazia hobetu behar izatekotan.

Horregatik biktima hauen existentzia ukatu egin da eta beste erremediorik egon ez denean errealitate hori gutxietsi edota bere benetako traza eta tamaina desitxuratzen ahalegindu da: «ez dira hainbeste»; «ez da hainbeste-terako»; «asmatzen ari dira»... «abusuak» dira. Abusu? Hiltzea al da abusu? Sexu-bortxaketa komisarian al da abusu? La itotzeraino hiltzea ez al da abusu? Gorputza fisikoki lesionatzea egun oso bat, bi, hiru edo gehiagotan zehar betiko zauriak uzten al da abusu? Pertsona psikologikoki barrutik apurtzea al da abusu? *La Manada* kasuan, arrazoiz esaten zen: hau ez da

abusu, hau bortxaketa da! Ba hemen ere gauza bera: dei dezagun gertatutakoa izen propioz, alegia, giza eskubideen bortxaketa larriak ditugu, ez abusu soilak.

Aurreko Ekainaren 23an aurkeztu zen Eusko Legebiltzarraren Giza eskubideetako urraketa larrien biktimei lehenengo txostena. Legea onartu zenetik ea 5 urte igaro eta gero! Nola hain berandu? Nolatan ba 5 urte legea onartzen denetik lehenengo emaitzak ikusten hasi arte? Legea onartzearekin batera legearen aurkako erasoak hasi egin zirelako. Beste kasutan edo beste biktimekin pentsaezina dena hemen eguneroko egia bilakatu da: alegia, legearen aurka errekurtsoak eta trabak jartzea, martxan jar ez dadin. Baina azkenean zailena lortu egin da: martxan dago.

Lehenengo aldiz legez tortura eta beste hainbat estatu-urraketa larriak modu ofizialean aitortzen eta zehazten dira. Egia da aurreko beste kasutan halakoak ere tokiko (inoiz ez estatuzentraleko) erakundeen aldetik aitortu direla baina beti edo txostenen bitartez edo 107/2012ko Dekretu baten esparruan gertatu zen. Azkeneko hauek duten meritua gutxietsi gabe, legez gauzak aitortzeak bestelako indarra du. Izan ere, legea baita herri-subiranotasunaren adierazlerik garrrantzitsuena. Lege onartzen bada ez da jada gobernu honen eta halako alderdi baten kontua. Bilakatzeko da denon zerbait: herri-gai, mailarik gorenean herri-plazan jarria. Duintasun-kontua ere bada: bizitza-eskubidea eta beste funtsezko eskubideak jokoa daude eta horrek lege-arauketa, ez bestelakoa eskatzen duen.

Baina hitz egin dezagun egiten ari den lanaz. Nolako aitortpena da hau? Has gaitezten aitortpen honi falta zaiorenekin. Zoritzarrez, erantzukizun penala ezartzeko ez du balio. Luze hitz egin genezake horri buruz: alegia, poliziek egindako lanaz delituek ezkatutzeko; fiskalek eta epaileek beste alde batera begiratzeko modu sistematikoa; legegile eta politikoa batzuen jarraz eta lanaz hau guztia ezagutu gabe

eta zigorgabe ilunpetan mantentzen diren; komunikabide asko eta askoren ezkatutze, zurritze eta justifikazio lan osagarriez. Justizia penala ez da inoiz gertatu eta pendiente dago. Hortaz, erantzukizun indibidualak ezin izan dira bentilatatu.

12/2016ko mekanismoa ez da errudunak identifikatzeko, ez bai, ordea, gertatu zen giza-eskubide larri baten berri ematekoa, hori baita kaltea konpontzeko aurruposamendua. Horra hor bere indarra. Ezkutatu nahi izan dena, azkenik ateratzen hasten da. Seriotasunez, lanbidez giza eskubideez ezagutzen dutenen eskutik, izan ere kasu bakoitza legetariet, auzi-medikuek, psikologoek, historialariek, biktimologian aditu-talde batek aztertzen baitute, ahalik eta konbentzimenduz eta fundamentuz esan ahal izan arte: bai horixe gertatu zen!

Jada ez da gehiago zure edo nire iritzia. Jada ez da kontua izango noraino dauden batzuk sinisteko prest, fedekontua balitz bezala.

Aitortzaren hizkuntza ere bereziki egokia da. Gaiotan gauzak esateko modua eta horren indar sinbolikoa funtsezkoa dugu. Horregatik legearen izenarekin bat eginda, zer gertatu zen ezartzeko orduan, Giza Eskubideen Estrasburgoko Auzitegiaren doktrina erabili da biktimok aitortzen dituen Balorazio-batzordearen aldetik. Bere hizkuntza, bere autoritatea egitateak deskribatzeko eta oinarritzeko erabili egin da. Eta hori biktimen aldeko berrikuntza izatearekin batera, bereziki proposa da, izan ere Estrasburgoko Goi-auzitegiaren kasuan bezala Balorazio-batzordeak ez baitu eskumenik erantzukizun penalik ezartzeko. Giza Eskubideen Auzitegiak epaia ematen duenean bakarrik, eta ez da inolaz ere gutxi, «arrazoia» ematen du: «bai halako edo bestelako urraketa suertatu zen» dio tribunalak. Eta askotan nahikoa da lehenengo justizia-maila asetzeko, zeren eta egia zapaldua denean egia bera aitortzea da lehenengo urratsa. Eta egia-egarri sakona denean, egiaren lehenengo ur tanta horrek zelako zapora goxoa dakarren!

Egarria, dena dela, ez da ase. Lehenengo tantak dira: biderearen hasiera. Denon esku dago 12/2016 Legea erabiltzea biderei ekiteko. Oraindik eskeriak aurkezteko epea zabalik dago. Probestu dezagun aukera, Balorazio-batzorde xumeak agian *Estrasburgo txiki* baten lana gure herrian egin dezan.

**Denon esku dago
12/2016 Legea erabiltzea
biderei ekiteko**

Halako patroia bat nagusitzen ari delakoan nago. *Askakeria* dei genezakeenarena. Reyes Maroto Espainiako ministroak ere esku hartu du beste ministro baten adierazpenek piztu duten polemikan. Kontsumo ministroak esan du haragi gutxiago jatea komeniko zela, osasun eta jasagarritasunaren onerako.



JIRA
Angel Erro

Gobernu bereko beste alderdiko kideek, presidentearengandik hasita, aholkuaz trufatzeari ekintza diote. Ez nuen honetaz idatzi behar, baina goian aipatu Maroto ministroak nire pazientziak gainezka egiteko falta zen tanta bota du esanez «nekatuta gaude, ez diezagutela esan zer egin behar dugun». Halakorik ministro batek, aginduak emateaz, arautzeaz, kontrolatzeaz arduratzen den batek, esatea ere.

Badirudi alderdi sozialistak ere apuntatu nahi duela eskunari hain ongi joan zaion askakeriaren aldeko kanpainara. Datoren hauteskondeei begira edo. Jendeak ez omen du errietarik nahi, bakean utzea baizik. Ez dira gutxi ezkerrekoen sermoilari jiteaz mintzo direnak. Hor ere zerbait aldatu da. Ez gara garai bateko rollo oneko tipoak. Kutsu autoritarioko festa zapuztutakoak baizik. Hiritarrak, gainera, nagusitxoak dira eta libre utzi behar zaie. Libre edo. Gaurko (eta gutxi batzuen) askatasunak zer dakarren kezkatu gabe.

Bigarren eskua

Hemen ez daukagu halakoetarako ohitura handirik, baina hemendik kanpo oso arruntak dira. Gauzak gutxitan erabili eta bota egiten diren lekuan bizi gara. Arropak hilabete gutxi batzuetan erabiltzen ditugu, edo egun berezi baterako erosi eta gero ez digute balio izaten, edo umeak hazi egiten dira arropak apurtu



BIRA
Onintza Enbeita

baino lehen, eta gauzak bota egiten ditugu. Askotan, gainera, sailkatu gabe: denak ontzi berdinera. Berdin egiten dugu altxariekien edo altxari baten gainean jartzeko erosten ditugun gauzekin. Kontsumitu, nazkatu arte eutsi eta gero bota. Eta gehienetan, azkar nazkatzen gara. Hala ere, hori guztia baino arraroagoa egiten zait bigarren eskuko gauzei diegun destaina. Lagunek emandakoa hartzen dugu, baina kosta egiten zaigu beste norbaitek erabilitako gauzak erabiltzea. Lektan gelditu dira sei ahizpek soineko berarekin Jaunartzea egiten zuten garaiak, edo mozorroak ahizpon artean aldatu eta errepikatut egiten genituen garaiak.

Bigarren, hirugarren edo laugarren eskukoak izan, gauzak bererabiltzen ikasi behar genuke. Kontua ez baita bakarrik gauzak birziklatzeko ontzietara botatzea. Egiten direnean erabiltzen diren lanordutak, balabideak eta materialak kontuan izango bagenitu, gehiago ezin denera arte erabiliko genituzke.